



filma
la película
the film
le film
sistiaga 1968/70

Erakusketa - proiektzioa

2007ko ekainaren 15etik uztailaren 15era
Ordutegia: asteazkenetik igandera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Prentsaurrekoa: ekainaren 14an, 11:00etan

Inaugurazioa: ekainaren 15ean, 19:30ean

Doako ikustaldi gidatuak: ostirala: 19:00etan (gaztelaniaz)
larunbata - igandea: 11:30ean (euskaraz), 19:00etan (gaztelaniaz)

...ere erera baleibu izik subua aruaren... **filmaren proiektzioa**
Victoria Eugenia Antzokia. Ekainaren 21ean, 20:00etan.



...ere erera baleibu izik subua aruaren... filmaren proiektzioa Tabakaleran

Erakusketa - proiektzioa

...ere erera baleibu izik subua aruaren... filma la película the film le film Sistiaga 1968/70

Ikus-entzuleen zentzumenak, jakin-mina eta emozioak kitzikatu nahi ditut, ezkutu-ezkutuan duten hura; ikus-entzuleak eurak kitzikatu nahi ditut.

Ken itzazue benda arrazionalistak, eta goza ezazue, lasai-lasai, ezezaguna zaizuen hartaz, merezi du eta. Ez izan bel-durrik, eta ez ezazue bilatu artean dagoeneko ezagutzen duzuen, hautemateko ate berriak zabalduko dizkizuen baizik.
José Antonio Sistiaga, 1990

Tabakalerak José Antonio Sistiagaren *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* erakusketa-proiektzioa aurkeztu du; hain zuzen, euskal artista honek 1968. eta 1970. urte artean egindako lana. Zuzenean zeluloide gainean pintatutako lan hau sormen ausarta da, baita egin zenetik ia berrogei urte igaro direnean ere. Pinturaren eta zinemagintzaren bidegurutzean kokatzen da nazioartean ibilbide handia egin duen film hau. Tabakalerak, beraz, ondo merezitako omenaldia egin nahi izan dio.

Tabakaleran egingo den erakusketaren komisario lanak Alvaro Matxinbarrenak egin ditu. Erakusketak filmaren proiektzio librea aurkeztu nahi dizue, artistak berak iradokitakoa. Pantailak erabili beharrean, *...ere erera...* filma eraikineko patio handietako baten horma, sabai eta zorueta proiektatutako da. Proiektzio horri esker, lanari beste ikus-pegi batetik so egiteko aukera izango dugu, proiektzioen eritmo arrunta eta irudi izoztuak tartekatuz. Hartara, askoz ere hobeto hauteman ahal izango da lanaren izaera piktorikoa.




Proposamena osatzeko, Sistiagak pintatutako fotogramen erreproduktzioen erakusketa bat jarriko da, eta artistari eta bere sormen prozesuari buruzko bi dokumental ere proiektatuko dira. Dokumentaletako bat J.A. Sistiagaren seme Gorka Sistiaga Beklemicheffek egin zuen 1981ean, eta lan horrek Sistiaga margolariarengana hurbiltzeko saioa egiten du. Beste dokumentala, berriz, Arte frantziar katearen eta Lobster Filmsen arteko koproduktzio lana da, eta pintatutako filmak egiteko Sistiagak darabilen sortze prozesuari buruz dihardu.

Bestalde, erakusketa aitzakia hartuta, Tabakalerak *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* filmari propio eskainitako lehenengo katalogoa eratu du. Bertan, Filmaren ia berrogei urteko ibilbidean kritikariek eta zinemagileek argitaratutako testuak eta katalogo honetarako propio idatzitako zenbait idatzi biltzen dira.

Era berean, Tabakalerak atal berezi bat eskaini dio erakusketa honi bere web orrian: www.tabakalera.eu. Erakusketari berari, filmari eta artistari buruzko informazio ugari bildu du bertan: Sistiagari Tabakaleran egindako elkarrizketaren bideoa, erakusketaren muntaiaren bideoa, filmaren zenbait pasarte, testuak, argazkiak etab.

Tabakalerako erakusketaren osagarri moduan, ekainaren 21ean, *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* filma eman-goto dute Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Hitzordua 20:00etan izango da, eta egileak berak asmatu eta eratu moduan ikusi ahal izango dugu film osoa.

...ere erera baleibu izik subua aruaren... filmaren fotograma margotuak



Filma

...ere erera baleibu izik subua aruaren...

José Antonio Sistiaga. 1968-70.
35 mm, 75', koloretan, mutua.

Zuzenean zeluloidean pintatutako film esperimental eta abstraktua. Kamerarik gabeko zinemagintza.
Pintatutako 108.000 fotograma.
Gutxi gorabehera, 2,5 km film zerrenda.


Filmaren izenburu arraro horrek (*...ere erera baleibu izik subua aruaren...*) ez dauka esanahirik, euskara gogora ekartzen duten soinuak baino ez dira. Filmeko protagonista bakarra pintura izatea nahi zuen J.A. Sistiagak, eta horregatik, ez zion lanari inolako izenbururik jarri nahi. Alabaina, frankismo garaiko egoera politikoa zela tarteko, zentsurak horretara behartu zuen. Rafael Ruiz Balerdi adiskide eta artistari deitu, eta eskatu zion esan ziezaiola batere esanahirik ez zuen baina euskal soinua zuen izenburu asmatu bat. Une hartantxe Ruiz Balerdik botatako izenburua da Sistiagak lanari jarri ziona.

1958. urtean etorri zitzaion burura zinemagintza esperimentalera hurbiltzeko ideia; Parisen, hain zuzen. Norman McLaren zinemagilearen film esperimental bat ikustera joan zen Montparnassen, eta orduantxe erabaki zuen, berak ere, noizbait, pintatutako film bat egingo zuela. Urte batzuk geroago, 1968an hain justu, Ruiz Balerdik 35 mm-ko zeluloide bobina bat oparitu zion, Ruiz Balerdi berak *Homenaje a Tarzán* bere filma pintatzeko erabiltzen ari zenaren berdina. Halaxe hasi zen Sistiaga bere filma pintatzen, fotogramaz fotograma.

...ere erera baleibu izik subua aruaren... filmak zeluloide gainean pintatzeko tradizioa errotik eraldatu zuen, berritu egin zuen. Film luze abstraktu eta mutu baten bitartez, Sistiagak zinemagintza tradizionalaren alternatiba bat berresteko asmoa zeukan. Hasiera batean, proiektuak izaera narratiboaren kutsua zuen, baina zenbait hilabetez lanean jardun ondoren, egileak erabaki zuen alde batera utziko zituela errepresentazio elementu guztiak. Hartara, bere pinturaren materia bilakatu zen filmaren gai bakar. Nolanahi ere, eutsi egin zion filmaren lehenengo zatiari, narratiboagoa zen hari, eta *De la luna a Euskadi* izena eman zion. Lan horrek, hain justu, Bilboko Zinema Jaialdiko Zinema Esperimentaleko Saria jaso zuen, 1968an. Lehen film labur horren bigarren bertsioak, berriz, *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* filma osatu zuen.

Filmaren sormen prozesuan ezinbestekoa izan zen Juan Huarte nafar enpresaburu eta mezenasaren parte-hartzea eta laguntza. Huartek berak sortutako X-Films ekoiztetxeak abangoardiako zinema proiektuak finantzatzen zituen, eta horri esker, 17 hilabete igaro ahal izan zituen Sistiagak buru-belarri lanean, bere filma eratzeko. Denbora tarte horretan, 12 eta 15 ordu bitartean jarduten zuen lanean, zeluloide gainean makurtuta, pintatzen.

Kasu batzuetan, Sistiagak zerrendaren luze-zabalean pintatu zuen, fotogramen banaketa alde batera utzita; beste batzuetan, berriz, fotogramen eremua errespetatu zuen, esparru espazial independenteak mugatuz. Gainera, tintez eta ohiko koloreez gainera, bestelako hainbat elementu naturalekin ere jokatu zuen bere proiektuan: eguzkia, haren izpien menera jarri baitzituen zeluloideak; hezetasuna; harea, zeluloidea karrakatzeko erabili zuena... Betiere, intuizioaren bulkadei jarraituz eta zoriari bere lana egiten utziz.



Sistiaga 1996an. (argazkia: Gillenca)

Egilea

José Antonio Sistiaga (Donostia, 1932)

Bere ibilbide artistikoaren hasieran, lan klasikoen kopiak egiten zituen Donostiako San Telmo Museoan. Ondoren, Parisera joan zen, eta 1954 eta 1961 artean bizi izan zen han. Bertan, abangoardiako arte mugimenduak ezagutu zituen. Garai hartan, informalismoa puri-purian zegoen, eta mugimendu horrek eragin nabarmena izan zuen Sistiagarengan. J.A. Sistiagaren pintura eta film lanak lotura hertsia dauka *action painting* estetikarekin edo keinu bidezko artearekin. 1963 eta 1968 artean, pintura libreari buruzko tailer ugari gidatu zituen haurrentzako, Donostian eta Elorrion, adierazpen libreko Freinet metodoa aplikatuz.

1965ean, Amable Arias eta Jorge Oteizarekin, GAUR abangoardiako artista taldea sustatu zuen. Talde hartan bildu ziren, halaber, Eduardo Chillida, Nestor Basterrechea, Jose Luis Zumeta, Remigio Mendiburu eta Rafael Ruiz Balerdi, Euskal Eskola sustatzeko helburuarekin.

1968an, zuzenean zeluloidean pintatutako bere lehenengo filma egin zuen: *De la luna a Euskadi*. Horixe izan zen bere lehen film luze esperimentalaren (...ere erera baleibu izik subua aruaren...) lehenengo bertsioa.

Ondoren, pintura arloko ibilbidean aurrera egin zuen, eta 1988-89an, beste film esperimental bat egin zuen: *Impresiones en la alta atmósfera*. Pinturaren eta filmen arloan Sistiagak egindako lana ikusgai jarri dute zinemagintza esperimentalari buruzko nazioarteko erakusketa eta ziklo ugarritan (Londresen, New Yorken, Parisen, Bruselan, Venezian, etab.).

Gaur egun, Ziburun (Lapurdi) bizi da eta Donostian duen tailerrean dihardu lanean.

Filmografia

- 1968 - *De la luna a Euskadi*. 35 mm, 8', koloretan, mutua (1. bertsioa)
1968-70 - ...ere erera baleibu izik subua aruaren.... 35 mm, 75', koloretan, mutua (2. bertsioa).
1970 - *Ana* 16 mm, 7', zuri-beltzean, soinuduna.
Laztanak. 16 mm, 85'
1972 - *Encuentros 1972, Pamplona*. 16 mm, 45', zuri-beltzean / koloretan, mutua.
1988-89 - *Impresiones en la alta atmósfera*. 70 mm/15 perforazio, 7', koloretan, soinuduna.
1991 - *Paisaje inquietante Nocturno*. 35 mm., 14', koloretan, soinuduna.
En un jardín imaginado, 35 mm., 14', soinuduna.
1992 - *Han (sobre el sol)*, errealizazio lanetan, 70 mm/15 perforazio, 7', koloretan, soinuduna.

Erakusketako komisarioa

Alvaro Matxinbarrena

Alvaro Matxinbarrena (Donostia, 1958) komisarioa eta artista da.

2002. urteaz geroztik erakusketako komisario lanak egin ditu Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, Madrilgo Casa Encendidan, Bartzelonako Asia Etxean, Valladolideko Patio Herreriano Museoan edo Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroan. Hala, hainbat artistarekin egin du lan: beste batzuen artean, Iván Zulueta, Marta Cárdenas, José Llanos, Judas Arrieta, José Antonio Sistiaga eta Jon Zabaletarekin.

Arteari dagokionez, 80ko hamarkadan pintura, eskultura eta instalazioa landu zituen, eta arte eszenikoen munduan eta zinemagintzan ere jardun zuen.

Bere lana Caixaren bilduman (Testimony Bilduma), Gipuzkoako Foru Aldundiarenean, Madrilgo Udalarenean eta Gasteizko Artium Museoaren bilduman dago bilduta, besteak beste.

Katalogoa

Erakusketarekin batera, *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* filmari propio eskainitako lehenengo argitalpena aurkeztu du Tabakalera. Bertan, filmaren ibilbide luzean argitaratutako testuak eta Tabakalera egingo den erakusketa honen harira idatzitakoak jasotzen dira. Tabakalera Zuzendari Nagusi Joxean Muñozen eta erakusketako komisario Alvaro Matxinbarrenaren testuez gainera, katalogoak kritikari eta zinemagile garrantzitsuen ekarpenak ere biltzen ditu:

Joxean Muñoz (Tabakalera Zuzendari Nagusia): (...) *Izenburuak ez du ezer esan nahi. Beraz, ez zaitezte ulertzen saiatu. Eraman zaitzaten utzi. Film bat bidaia bat da. Bide bat. Filma mutua da. Ez du hitzik. Ez du musikarik. Baina entzundakoaren irudipena izango duzue. Izenburuak arao magiko baten doinua du. Sorgindu zaitzaten utzi.*

Alvaro Matxinbarrena (Erakusketako komisarioa): (...) *Sistiaga, zalantzarik gabe, artista berezia da, ez du aurreiritzirik, ez du amore ematen, ez du aho bizarrik, ezta beldurrik ere, egatia da... eta, Tabakalera eremu honetan, berriro ere erakutsi du hori.*

José J. Bakedano: (...) *...ere erera... filma mutua da, dagoeneko nazkatuta baikaude aholkuak, mezuak eta gogoetabideak ezkututzen dituzten hitzez. Hilda, lo, eserita, aspertuta, lotuta eta isilik dauden ikus-entzuleen aurkako eraso da. Ez dago egina parte hartu gabe begiratzen duten eta begiratu gabe parte hartzen dutenentzat.*

Begoña Vicario: (...) *filma ikusteko modurik onena, ziur asko, filmaz kanpoko daturik ez ezagutzea litzateke, lehen aldi horretara birjina iristea alegia, eta bertan gertatzen zaigun eta burutik pasatzen zaigun guztia naturala eta biologikoa izatea.*

Boris Lehman: (...) *Zinema espontaneoaren maisulana da, eta jakina, haur batek egina. Erabateko hautematerako bidaia paregabe eramango gaituena.*

Jean Michel Bouhours: (...) *Azao argitsu batek erakarriko ditu ikus-entzuleak, eta argirantz doazela irudituko zaie, zerrenda gardenean itsatsitako koloretako tinta tantek sortutako korpuskulu unibertsoak zeharkatzen dituztela irudituko zaie.*

Juan Bufill: (...) *Magma kromatiko dardaratzaila eta aldakorra da; Pollocken espresionismo abstraktua bezain piktorikoa, baina hura baino askoz ere iradokitzaile eta gogorarazleagoa. Ozeano arraildu baten aurrean gaudela dirudi, asko harrotutako uhartediaren, ur basatien eta gorputz barneko izarrartearen aurrean. Lan psikodelikoa da, hitzaren zentzurik on eta originalenean. Buruaren eta zentzumenera irekitzea dakar, baina LSDaren eraginezko bidaia bat ez bezala, garunari kalterik eragiten ez diona; are gehiago, on egin diezaiokeena...*

Tabakalera
Donostia

...ere erera baleibu
izik subua aruaren...



1969. J.A. Sistiaga *...ere erera baleibu izik subua aruaren...* filma margotzen

TABAKALERA

XX. mendean barrena, tabako lantegia izan zen Tabakalera. Itxi zutenean, baina, euskal erakundeek -Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak- eraikina XXI. mendeko kultura zentro bilakatzeko asmoa erakutsi zuten, eta lanari heldu zioten.

Ondorioz, ekoizpen zentroa izango da Tabakalera. Erakusketak, proiektzioak eta ekitaldiak antolatuko dituen erakusketazentrotan. Era berean, gogoetarako, eztabaidarako eta ideiak trukatzeko foroak ere izango da. Trebakuntza espezializatu eta irekiko zentroa izango da, etengabeko ikaskuntzari begira egongo dena. Eta, halaber, artxibo eta hedapen gunea ere izango da. Kultura mundua aro digitalera egokitzeko tresna baliagarria izan nahi baitu Tabakalera.

Zinemaren eta pinturaren arteko bidegurutzean dagoen proposamen berri honen bitartez, zentroak kultura bisualaren aldeko interesa eta diziplina ezberdinen artean trukeak bultzatzeko nahia berresten ditu, lantegi izaera duten bere espazioetatik sortzaileen eta ikusleen artean elkarrizketa bideak eraikitzearekin batera. Horrenbestez, Tabakalera etorkizunean izango den kultura bisualeko fabrikaren aurrerapen bat eskaintzen du.

Hurrengo erakusketa

Summer - Julian Schnabel

Uztailaren 27etik urriaren 7ra



**T Tabakalera
Donostia**
Duque de Mandas, 52
20012 Donostia-San Sebastián
T +34 943 011 311 / F +34 943 011 312
info@tabakalera.eu
www.tabakalera.eu

K Kursaal
KM Koldo Mitxelena
VE Victoria Eugenia
R Renfe